



ARAUTEGIA
ESKUBALOIA 2024

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Eskubaloi Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu 2024ko maiatzaren 4 eta 5an, Basauriko Urbi eta Artunduagako Udal Kiroldegian. Hona hemen arautegia:

1.- ANTOLAMENDU OROKORRAK

- Mailak: Infantilak, 2010 eta 2011ean jaiotako neska-mutilak.
- Partidak hogeita bost minutuko bi zati izango ditu, bien artean hamar minutuko atsedendiarekin.
- Eskolarteko Jokoen baitan, gehienez 18 jokalarik jokatu ahal izango dute talde bakoitzean.
- Taldeek 16 jokalaria sartu ahal izango dituzte aktan. Gutxienez 13 jokalaria sartu beharko dira partidako, fitxa-kopuru hori tramitatuta duten eta ez joateko arrazoi justifikaturik ez duten taldeetan. Talde batek 14-15 fitxa baditu, gutxienez 12 jokalarirekin joan beharko du, arrazoi justifikaturik ez badu. 13 fitxa dituen taldeak 11 rekin gutxienez eta 12 fitxa dituenak 10 ekin gutxienez aurkeztu beharko dira. Salbuespen gisa, denboraldian zehar 12 parte-hartzaile baino gutxiago izan dituen taldeak parte hartu ahal izango du. Kasu horretan, taldeko kide guztiek parte hartu beharko dute.
- Nahitaezkoa izango da partida bakoitzean entrenatzaile eta arduradun baten izen-emate eta presentzia fisikoa, azken hau, taldeko ofiziala, taldeko laguntzailea edota entrenatzailearen laguntzailea izan daiteke, betiere, taldeko arduradunaren egin beharrak bete beharko dituelarik.
- Partida guztietan taldeko kideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu.
- Kirolariren bat Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako ordezkariak duen parte-hartzaileen zerrendan ez badago, kirolariak parte hartu ahal izango du, taldeko



EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK XLI JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



arduradunari aldez aurretik abisatuta. Ahalik eta lasterren, Jarduera Fisiko eta Kiroleko Zuzendaritzatik, zerrendan agertzen ez den pertsonaren taldeko kide dela egiaztatuko du. Zerrendan agertzen ez den pertsona taldeko kidea ez bada, jokalarien zerrenda okertzat emango da, eta arau-haustea egin duen taldeak partida galduko du, baldin eta emaitza irabazia suertatzen bada, 30 – 0 emaitzarekin. Partidaren emaitza arau-haustea egin ez duen taldearen aldekoa bada, hura errespetatuko da.

- Parte hartzen duten taldeen osaera Foru Aldundietan inskribatuta dagoena izango da. Ez da onartuko sailkatutako erakunde bereko lizentzia eduki arren, Euskadiko Eskola-Kirol Jokoetarako sailkatutako taldekoak ez diren jokalarien parte hartzea. Lege hori mantendu egin beharko da, nahiz eta egoera hau beste lurraldetan jokatu diren lehiaketetan baimendua izan.
- Talde guztiek kolore ezberdineko bi ekipamendu izan behar dituzte, bi taldek kolore berarekin jokatzeko saihesteko. Kasu honetan, txapelketaren webgune ofizialean bisitari talde bezala azaltzen denak, bigarren janzkera erabili beharko du.
- Jokalarientzat arriskutsua izan daitezken edozein objektu eramatea debekatuta dago; adibidez: buru eta aurpegirako babesle sendoak, eskumuturrekoak, erlojuak, eraztunak, kateak, belarritakoak, banda babeslerik gabeko betaurrekoak edo armazoi gogorrekoak. Arau hau betetzen ez duten jokalariek ezingo dute jokoan parte hartu egoera zuzendu ezean.

2.- TXAPELKETAREN EZAUGARRI ETA IRIZPIDEAK

- Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan, ikasturte berean eta dagokien lurraldeetako txapelketetan irabazleak suertatu direnak parte hartuko dute.
- Euskadiko Eskubaloiko Federazioak baloiak aurkeztuko ditu. Baloiak 50 – 52 zm eta 315 gr.tako gehiengo pisua izango du. Berotzeko baloiak parte hartzaileek eraman beharko dute.
- Edozein pegamendu mota debekatuta dago.
- Txapelketa, itzulera bakarrekotako liga sistemaren arabera jokatu da, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzatik zehaztuko den eran.
- Sailkapena puntu gehien lortzen duen taldearen arabera izango da, honako puntuaketa taula honen arabera:
 - ✓ Irabazitako partida: 2 puntu
 - ✓ Berdintutako partida: talde bakoitzerako puntu bana.



EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK XLI JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



✓ Galdutako partida: 0 puntu.

- Bi edo talde gehiagoren arteko berdinketa suertatuz gero, sailkapenerako irizpideak honako hauek izango dira:

Bi taldeen artean:

- 1º- Beraien artean soilik jokaturiko partidatan lortutiko gol ezberdintasuna.
- 2º- Txapelketan parte hartutako talde guztien arteko partidak kontuan hartuta lorturiko gol ezberdintasuna.
- 3º- Talde guztiak kontuan izanda, gol gehien sartu dituen taldea.
- 4º- Berdindutako taldeak kontuan izanda, aldeko golak eta aurkako golen artean lorturiko zatidura hobea.
- 5º- Parte hartutako talde guztiak kontuan izanda, aldeko golak eta aurkako golen artean lorturiko zatidura hobea.
- 6º- Lehen itzuliko partiden amaieran, beraien artean jaurtitako penaltien emaitza.

Hiru taldeen artean: *

- 1º- Beraien artean soilik jokaturiko partidatan lortutiko gol ezberdintasun handiena.
- 2º- Hiru taldeak kontuan izanda, gol gehien sartu dituen taldeak.
- 3º- Berdindutako taldeak kontuan izanda, aldeko golak eta aurkako golen artean lorturiko zatidura hobea.

* Irizpide hauek mantenduko dira, soilik 2 talde berdinduta dauden arte. Hau gertatzean, biren arteko berdinketa ematean, berdinketa irizpidea jarraituko da.

Lehen itzuliko partida bakoitzaren amaieran, eta balizko berdinketak argitze aldera, 7 metroko tanda bat garatuko da, IHF sistema eran, Euskadiko Eskubaloi Federazioaren araudi eta txapelketen araudian azaltzen dena.

3. ARAU TEKNIKOAK

- Eraso-defentsan jokalaria espezialisten aldaketak ez dira onartuko, honako argibideen arabera:



EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK XLI JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



Garapena:

Partiduan zehar, ordezeko jokalariaik, jokalekura, soilik beraien taldeak baloia dutenean sartu ahal izango dira, ohar-hartzaile edo kronometratzaileari abisatu gabe, betiere, ordezkutzen duten jokalariaik jokalekua utzi badute.

Argibidea:

Talde batek baloia duela ulertuko da baldin eta:

- A. Taldeko edozein jokalarik baloia duenean.
- B. Aldeko jaurtitzea edo sakea egin behar denean.

Time-out-aren zehar, 2 taldeetan aldaketak egin daitezke, taldeetako arduradunek hala eskatuta.

Gola lortu denean, ulertu behar da, gola sartu duen taldea jada ez dala baloiaren jabe. Kasu hauetan, zigorra, 2 minututako kanporatzea izango da talde zigortuarentzat.

Ezinbestek bultzatutako kasuetan, lesioa, etab., eta joko-denboraren aurretiko geldialdian (*time-out*), arbitroen eskutik eta hauen baimenez, baloia ez duen taldeak aldaketak egin ditzake. 7 metro aurkako jaurtiketa batekin berretsitako talde batek atezaina aldatu nahi duenean, aldaketa honek baimendua izan beharra du. Arbitroek baloratuko dute, egoera bakoitzaren arabera, aldaketa egiteko *time-out*-a egingo den, baina berau, joku-denboraren geldialdia egon edo ez, beti izango da baimendua.

Jokalaria batek talde bateko 7 metro guztiak jaurti ditzakeen bezala, atezain bakarrak jaurtiketa denak gelditzeko ahalegina egin dezake.

- Beharrezkoa da gutxienez 2 lerrotan defendatzea, baina defentsa mistoak debekatuta daude.

Arbitroek defentsa mistoak antzemanaz gero, modu honetara jardungo dira:

Lehen aldia: talde defendatzailearen entrenatzaile edo arduradunari joko denboraren etenaldia eta oharra, baimendu gabeko defentsa bat egiten ari dela esanez. Jokoari berriz ekingo zaio kolpe franko batekin, arau-hausle ez den taldearen alde, jokoaren eta jokoaren denbora etenaldia eman den momentuan baloia zegoen leku beretik.



EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK XLI JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



Hurrengo aldiak: 7 metroen jaurtiketa, debekatutako defentsa jasaten duen taldearen alde. 7 metroen jaurtiketaren emaitza alde batera utzita, gola izan edo ez, alboko sakearekin hasiko da berriz ere jokoa, alboko marra eta erdiko lerroaren arteko intersekziotik, ohar-hartzaile-konometratzaile edo aldaketen guneko mahaia kokatzen den aldean, 7 metroko jaurtiketa egiten duen taldearen alde. Hau da, arau-hausle ez den taldeak 7metroko jaurtiketa izango du, eta baloiaren jabetza berriro ere.

Kasu guztietan, 7 metrotako jaurtiketak, lehen edo bigarren denbora bukaerako jaurtiketaren (joko denbora bukatuta dagoenean) begiramen bera izango du, beraz ez da alderatzea edo jarraipena emango.

- Aktan izena emandako jokalaria guztiek jokatuko dute partida, gutxienez 12 minutu. Kontrol hori eramango duen pertsona bat egokituko da, eta hori izango da pertsona honen eginkizun bakarra. Pertsona honek partidua geratu dezake, araua hausten duen entrenatzaileari ohartarazpena egin ostean, araua hausten jarraitzen badu. Kasu honetan, partidua ez da berriro hasiko taldeak egin beharreko aldaketak egin arte.

Hurrengo salbuespenak ezarri dira:

- ✓ Lesionatutako jokalaria (sorospena jasotzen badu ez dago zertan ordezkaturia izan, betiere, jokoa 2 minutu baino gehiago gelditzen ez bada.
- ✓ Kanporatutako jokalaria.
- Talde batek 30 goletako ezberdintasuna lortzen badu, partidua amaitutzat emango da, momentuan dagoen emaitzarekin. Geratuko den joko denboran lehiatzen jarraituko da, aktan gertakariak jaso gabe, eta sailkapen-baliorik gabe, horrela, tarte horretan ematen diren golak eta emaitzak ez dira zenbatuko. Soilik hartuko da aintzat, aurrez izandako diziplina zigorra eta deskalifikazio edo kaleratze kasua, Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen epaile bakarrera bidaliko da.
- Deskalifikazioa txostenarekin egiten bada (txartel urdina), lehiaketa-batzorde bat egongo da, zigorra ezartzeko moduko den edo ez erabakitzeko, eta zigorra behar ezker nolakoa izango den.
- zehapen handia dagoen ala ez ikusteko eta zigorra jartzeko eskatzen duen ikusteko.

SARIAK

Lehen, bigarren eta hirugarren lekuan sailkatutako taldeentzat garaikurrak banatuko dira.

EZUSTEKOEN AURREAN



EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK XLI JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



Lesio edo ezbeharririk sortuz gero, antolakuntzak kirol instalakuntza horretarako jarritako pertsona arduradunera jo beharko da. Beronek bideratuko ditu eman beharreko pausuak.

AZKEN OHARRA

Araudi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak izango dira kontuan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d. AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 16koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e. EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 25ekoa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI edizioako lehiaketako epaile bakarra izendatzen duena.
- f. Eskubaloiko Espainiako Federazioaren arautegiaren araberakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien arteko interpretazioan ezberdintasunak egonez gero, jatorrizko bertsioan jartzen duena jarraituko da.